



Sostenibilidad, pymes y financiación



Uzt. 05 2022

Kod. E09-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 05 2022

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Webgunea

<http://www.elkargi.es>

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Azkenaldiko pandemiak azkartu egin du gure gizartearen eraldaketa, modu oso berezi batean, posible izango den etorkizun bakarra bistaratzeko moduan. Mundu berri horretan, jasangarritasun irizpideak ezinbestekoak izango dira agente guztientzat, eta guztiok interpelatzen gaituen zerbait da: enpresak, norbanakoak, administrazioak eta gainerako gizarte eragileak, eta ez nahitaez ordena horretan.

Enpresaren ikuspegitik, jardunaldiak argibideak emango ditu jasangarritasunaren alorrean erabakigarrienak diren parametroei buruz: indarrean dagoen araudia eta erregulazioa, egitasmo berriak eta agente garrantzitsuenek hartutako konpromisoak, hori guztia enpresa adibide errealei buruzko azalpenekin batera.

Kasu horien artean aurkeztuko dira, besteak beste, erreferentziazko egitasmoak ekonomia zirkularrean, hondakinen eraldaketa eta berreskurapena, energia garbien garapena edo automozioaren industrian gertatzen ari diren aldaketak.

Ekonomia guztiek ez dituzte ezaugarri eta arazo berak. Beraz, enpresak erreparatu behar die bere inguruko enpresa ekosistemara hobekien egokitzen diren helburuei. Horregatik, jardunaldian arituko diren adituek hizpide izango dituzte alor honetako estrategia globalak, baina baita tokikoak ere, eta hori guztia enpresa ikuspegi batetik.

Gainera, aztergai izango da ere finantza sektorean gertatzen ari den eraldaketa, haren negozio ereduaren aldaketa, digitalizazioaren eta jasangarritasunaren 'driver'-ak, eta horrek guztiak enpresetan duen inpaktua. Zeintzuk diren Europak ezarritako inbertsio eta finantzaketa irizpide jasangarriak, ingurumena babestuko duten jardueren alde egiteko: finantza jasangarrien taxonomia berdea.

Helburuak

Jardunaldi profesional honen xedea da erantzutea enpresa munduak (ETEak, horietako asko) jasangarritasunaren, ingurumen eta gizarte erantzukizunaren eta gobernantzaaren alorrean egiten dituen galdera guztiei, aintzat harturik ESG parametroak, 2030 Agendaren gakoak eta GIHak.

Jasangarritasuna faktore erabakigarri bihurtu da enpresa batek edozein erabaki hartzeko orduan. Kontzeptu etereo eta futuriblea izateari utzi dio eta 'must' bat bihurtu da. Jasangarritasunak den-dena blaitu du eta soilik jasangarriak diren proiektuek izango dute etorkizuna. Legeditik harago, enpresa proiektuak jasangarriak izango dira edo ez dira proiektu izango. Jasangarritasuna eta errentagarritasuna, txanpon beraren bi aldeak.

Jardunaldi honek gako horiei guztiei erantzungo die, kasu erreal interesgarrienak erabilita, eta araudiaren alorreko azken berriak jorratuko ditu.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

ELKARGi

Programa

2022-07-05

08:45 - 09:00	Registro
09:00 - 09:15	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: José Ignacio Asensio Bazterra Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa - Diputado de Gipuzkoa de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas Itziar Alkorta Idiakez Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU - Directora académica
09:15 - 10:00	“Cómo incorporar la sostenibilidad de manera estratégica en mi proyecto” Olga Martín García ACLIMA - Basque Environment Cluster - Dtora. General
10:00 - 10:40	“PYME Circular Euskadi: herramienta para el fomento del Ecodiseño y la Economía Circular. Cómo “hacer más con menos” y ser más competitivo” José María Fernández Alcalá IHOBE - Sociedad Pública de Gestión Ambiental del Gobierno Vasco - Dtor. Economía Circular
10:40 - 11:10	“La Taxonomía, ¿quién es sostenible y por tanto financiable?” Elias Gómez López BBVA - Responsable de Sostenibilidad en Client Solutions (Zoom bidez parte hartuko du)
11:10 - 11:40	Atsedena
11:40 - 12:10	“La historia de una empresa industrial y circular, para crear un mundo mejor” Aritz Garcia Seguro EKOMODO SUSTAINABLE COMPANY, S.L. - Fundador y CEO
12:10 - 12:40	“Circular Thinking, el pensamiento de moda para la industria” Angela Fernández Fernández GRUPO AGALEUS - Dtora. Gerente
12:40 - 13:10	“El hub del hidrogeno: economía verde para la ‘nueva’ industria vasca” Josu Aramburu Txopitea SENER, INGENIERÍA Y SISTEMAS, S.A. - Responsable de Sostenibilidad
13:10 - 13:50	“La transformación radical de un modelo de negocio con tradición” Raquel Piñán ACICAE - Basque Automotive Cluster / AIC-Automotive Intelligence Center - Directora de Internacionalización de ACICAE
13:50 - 14:00	Itxiera Conclusiones y cierre de la jornada Zenón Vázquez ELKARGI - Dtor. General

Zuzendaritza



Isabel González Diego

ELKARGi SGR, Directora de Formación

Irakasleak



Josu Aramburu Txopitea



José María Fernández Alcalá

Ekonomia Zirkularreko zuzendaria IHOBEn eta Basque Ecodesign Centerren arduraduna. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzaren beraren eta Euskal Autonomia Erkidegoan berezko produktua duten 8 industria-empresa garrantzitsuenen arteko lankidetza publiko-pribatuko ekimena da, industria-jardueran ekodiseinua sustatzeko eta bizi-zikloaren analisia integratzeko. Industria Ingeniaria Bilboko Ingeniaritza Goi Eskolan, 15 urte baino gehiagoko esperientzia profesionala du enpresa pribatuan eta administrazioan. 10 urte baino gehiago aktiboki parte hartzen Europar Batasunak Bruselan dituen batzorde teknikoetan eta produktuen normalizazioaren arloko estatuko eta nazioarteko batzordeetan (UNE eta ISO batzordeak). Latinoamerikarako eta Kariberako ekodiseinuan, bizi-zikloaren azterketan eta eraikuntza arloan Nazio Batuen Ingurumenerako Programak (UNEP) aditu bezala izendatua.



Angela Fernández Fernández



Aritz Garcia Segurola



Elias Gómez López



Olga Martín García

ACLIMA, Basque Environment Cluster, Directora General

Kimika Zientzietan lizentziatua (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Executive MBA Bartzelonako Unibertsitatean. Esperientzia profesional handia du enpresan, eta nabarmentzekoa da VIDRALAn egindakoa, zuzendaritzako hainbat kargu izan baititu. Ordezkaritza gisa parte hartu du beiraren sektoreko elkarte garrantzitsuetan, hala nola FEVE - European Federation of glass packaging and glass tableware makers eta ANVEFI - Beirazko Ontzien Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala -, eta berrikuntzaren esparruko beira-partzuergoetan, hala nola IPGR edo ICG. Gaur egun, Olga Martín Aclimaren zuzendari nagusia da. Klusterrarekin eta bere Plan Estrategikoarekin konpromisoa du. Horren adibidea euskal ingurumen-sektorea lehiakortasun-palanka gisa kokatzea gainerako sektoreentzat. Aclima-Basque Environment Cluster Euskadiko ingurumen-sektorearen erreferentea eta biltzailea da. Sektore pribatua, ezagutzaren eremua eta sektore publikoa ordezkatzen ditu.



Raquel Piñán



Zenón Vázquez

Zenón Vázquez cuenta con una amplia trayectoria en el mundo financiero y empresarial tanto a nivel

estatal como internacional. En concreto, y desde 2014, ha desempeñado con éxito su labor profesional como responsable Financiero (CFO) de la cotizada Cie-Automotive. Conocedor profundo del entorno financiero a lo largo de estos años así como en sus funciones de líder de organizaciones complejas y Gestión de Personas, cuenta también con experiencia en compañías del sector financiero, control de gestión y auditoría. Zenón es el Director General de Elkargi desde abril de 2019. Licenciado en CCEE y Empresariales por la Universidad de Deusto con especialidad en Finanzas en Kingston-London, ha cursado también el PADE-Programa de Alta Dirección de Empresas- en IESE.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-07-05 ARTE
Orokorra	75,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	45,00 EUR
Matrikula exentzia	53,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2022-07-05 ARTE
Orokorra	75,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	45,00 EUR
Matrikula exentzia	53,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa